

Arma gora, boligrafoak behera

EILASek eta Gasteizkoak-ek txostena egin dute gastu militarra eta hezkuntza beharrak alderatuta

ESTITXU UGARTE

Gasteiz

2006ko Araba, Bizkai eta Gipuzkoako gastu militarra nahikoa litza-teke lehenengo eta bigarren hezkuntzaren oinarritzko beharrak asetzeko, eta 500 milioi euro sobratuko lirarteke, gainera. Horrela, armagintzaren ikerketa alorrean Eusko Jaurlaritzak aurten gastatu duen diruarekin hamabost ikastetxe berri eraikiko lirarteke, eta promozio berriari sartu diren 450 ertzainen gastuarekin ikas materialaren eta liburuen doakotasuna bermatuko litza-teke.

Datuok Gasteizko Antimilitarista Taldeak eta EILAS sindikatuak jaso dituzte atzo aurkeztutako txosten batean. «Dirua egon badago, baina ez dago militarismoa gaintzeko asmorik, eta hezkuntzaren beharrak arintzeko asmorik», nabarmendu zuen Gasteizko taldeko kide Jesus Navasek. Halaber, urte urte gastu militarrek gora egin duen bitartean, hezkuntza inbertsioak behera egin duela azpimarratu zuten.

Azterketaren arabera, Espainiako gastu militarra laguntzeko eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako polizia gastuak ordaintzeko 1.656,78 milioi euro inbertitu ditu Eusko Jaurlaritzak aurten. Hori sartzen dira, batetik, Eusko Jaurlaritzak kupoaren bitartez Espainiako Gobernuaren defentsa gastuetara bideratzen duen ekarpena (1.110,79 milioi euro), eta erkidegoaren polizia gastuak ordaintzeko aurreikusitako partidak (545,99 milioi euro).

Gainera, txostenak azaltzen

■ Araba, Bizkai eta Gipuzkoa, 2006

Gastu militarra	Milioi euro		Hezkuntza beharrak
	Milioi euro	Milioi euro	
Militarren soldatak	262,84	229,22	Langile gastuak
Helikopteroak, tankeak eta hegazkin militarrek egiteko	1.141,36	677,4	Eskola berriak eraiki, zaharberriak, mantentze lanak
Espainiako armadak atzerrian egin dituen operazioak (1992-2004, Bosniako gerran)	93,87	63,93	Hezkuntzak ondo betetzen ez dituen behar batzuk asetzeko (ikasle etorkinak, ikasgaien banaketa, tutoretzak...)
Sener euskal armagintza enpresak egin duen misil bat garatzeko	57,40	54	Ikasleentzako laguntzak eta beka
Ertzaintzaren komisariak eraikitzeko	7,43	3,6	Hezkuntza berrikuntza eta irakasleen prestakuntza
Militar erretiratuaren pentsioak ordaintzeko	186,78	166	Hezkuntza kontzertatutako soldatak eta lan baldintzak hobetzeko

ITURRIA: EILAS SINDIKATUA, GASTEIZKOAK TALDE ANTIMILITARISTA

duenez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako egunero egiten den gastu militarra 4,54 milioi eurokoa da. Halaber, herritar bakoitzak 779,72 euro inbertituko ditu aurten gastu militarri aurre egiteko.

Bestetik, EILASek egin duen ikerketan jasotzen denez, 1.191,15 milioi euro gehiago inbertitu beharko lirarteke aurten Araba, Bizkai eta Gipuzkoan lehenengo eta bigarren hezkuntzaren oinarritzko beharrak asetzeko, alegia gastu militarri zuzendutako %71.

Hezkuntzak dituen beharrak, EILASen irudiko, era guztietakoak dira. Lehenik eta behin, langileen gastuak handitzea ezinbestekotzat jotzen du sindikatuak, eta hartara, besteak beste, 1.665 irakasle gehiago hartu behar direla azaldu

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritar bakoitzak 779 euro eman du aurten gastu militarreko

du txostenean. Halaber, Obren eta Azpiegituren Plana martxan jarzteko gastuak kontuan hartu ditu EILASek, eta ikastetxeetan aniztasuna sustatzeko programen aurreraketa aipatu du. Beharren atalean bildu ditu, baita ere, beka eta laguntzak handitzearen aldeko apustua eta irakasleen prestakuntza indartzea.

GORA ETA BEHERA. Bigarren ondorio bat ere jaso dute EILASek eta Gasteizkoak Antimilitarista Taldeak txostenean. Hain zuzen, urte urte gastu soziala eta hezkuntzari zuzenduriko aurrekontua murrizten ari dela, eta aldez, gastu militarrek gora egin duela.

Hezkuntzaren aurrekontuari dagokionez, azken urteetan eten-

Aurten, gastu militarreko bideratutako aurrekontua %7,98 igo da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

gabeko beheranzko joera izaten ari dela salatu du EILASek. Hala, Barne Produktu Gordinaren (BPG) arabera, hezkuntza gastua %3,77 igo zen 2002. urtean, %3,63 2003. urtean, eta %3,53 2004. urtean. Hortaz, Europako Batasuneko gainerako herrialdeekin alderatuta, eta Europako batez bestekoa aplikatuz gero, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza aurrekontuek 780 milioi euro inguruko defizita dute 2006an. «Hezkuntzako gastu publikoa Europako txikiena da», adierazi zuen EILASeko kide Endika Rodriguezek.

Aitzitik, urte urte gastu militarren xahutzen duen dirutzak gora egin du. Hala, 2005. urtean, Gasteizkoak taldeak eginiko urteko txostenaren arabera, 1.324 milioi euro inbertitu zuen Eusko Jaurlaritzak armagintzan, militarren soldatak ordaintzen edo Ertzaintzaren funtzionamenduan. Aurten, horretara bideratutako aurrekontua %7,98 igo da.

edo zazpi urteotan errentatik bizi izan da Hezkuntza Saila. Guk egin dugun azterketarekin bat egiten dute gurasoen elkarteek, sindikatuak eta beste eragile ugari.

Hezkuntzaren alorrean faltan sentitzen dituzuen inbertsio horietatik zeintzuk izango lirarteke premiazkoenak?

Hezkuntzaren kalitatea bermatzeko giza baliabideak handitu behar dira, hots, ratioa orekatu behar da, ikasle kopurua jaitsi, eta profesional berriak hartu. Hortaz, premiazkoa da giza baliabideak handitzea, egungo langileria duela hamar urte genuena baita, ez da handitu nahiz eta ikasle kopurua igo. Aurrera joan beharrean atzera goaz, genituen abantailak galtzen ari gara. Bestetik, horri lotuta ikastetxeen eraberritzea ezinbestekoa da, Hezkuntza Sailak berak onartu du zaharkituta daudela.

Zazpi lagun atxilotu dituzte Bilbon, prostituzio sare batekin lotuta

ERREDAKZIOA

Donostia

Nazioarteko prostituzio sare batekin lotura dutelakoan zazpi lagun atxilotu zituen atzo Espainiako Poliziak Bilbon. Espainiako Gobernuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan duen ordezkariak jakinarazi zuenez, atzerriko emakumeak, batik batik brasildarrak, legez kanpo ekartzen zituzten Bilbora, eta ondoren bertako hainbat klubetan prostituzioan aritzera behartzen zituzten. Zazpi horiez gain, Bilboko Lidos klubaren barruan zeuden beste bederatzi emakume brasildar ere atxilotu zituen poliziak, legez kanpo egoteagatik.

Ikerketa joan den uztailaren bukaera aldera abiatu zuen poliziak, zenbait emakume Bilboko Lidos klubaren aurka jarri zituzten salaketan ondokit. Emakume horiek adierazi zuten, gogoz kontra hainbat gauza egitera behartzen zituzten, bidaiako gastuak lokalako arduradunek ordaintzen zizkielako. Iraindu ere egiten zituztela salatu zuten emakumeek. Poliziak egin duen ikerketaren arabera, atzerrian zituzten kolaboratzaile bitartez, kultura maila eta egoera ekonomikoa eta sozial eskasa zuten emakumeak bilatzen zituzten atzerrian eta trukean hemen lana eta dirua jasoko zutela esaten zieten. Horrez gain, bidaiak eta hasierako gastuak ordaintzen zizkielako diru gutzia itzultzeko ere exijitzen zieten emakume horiek. Atzeritik ekartzen zituzten emakumeak oso gazteak ziren, gehienak banandua eta seme-alabak zituztenak.

20 ETA 57 URTE BITARTEKO ATXILOTUAK.

Irailaren 26an bukatu zuen ikerketa poliziak eta atxilotuetako zazpi horien artean klubetako arduradunak, bi brasildar eta Bilboko bidaiak agentzia bateko langile bat daude. Azken hori emakumeak atzeritik ekartzeko bidaiak prezio baxuan lortzeaz arduratzen zuten. Halaber, emakumeek Europara sartzean poliziaren kontrolak saihesteko ardurak ere bere gain hartzen zuten. Bi brasildarrek, berriaz, euren ezaugarriekin bat zetozen emakumeak bilatzen zituzten Brasil.

20 eta 57 urte bitarteko lau gizon eta bi emakume dira atxilotutakoak: Esteban A. (56 urte), Ramon D. (45 urte), Jacinta F. (46 urte), Ignacio I. (57 urte), Ignacio Javier R. (46 urte), Andreia D. S. (20 urte) eta ABERNALDO G. (29 urte). Horietatik lauk, gainera, aurrekariak dituzte.

Poliziak atxilotetak egin zituen unean, lokalean, besteak beste, 9.629 euro, pistola bat, material informatikoa eta beste hainbat agiri atzeman zituen.

ENDIKA RODRIGUEZ EILAS sindikatuko kidea

«Aurrera joan beharrean atzera goaz, genituen abantailak galtzen ari gara»

E. U.
Gasteiz

EILAS sindikatuaren arduradun Endika Rodriguezek txostenaren prestaketa parte hartu du, eta bertan adierazten diren ildo nagusien inguruko hausnarketa egin du.

Zergatik bururatu zaizue halako ikerketa bat egitea?

Guk uste dugu hezkuntza gastua ez dela garrantzitsua berez, baizik eta balio estrategikoa delako, kohesio bidean garrantzi handia du-

lako; eta hezkuntza lehentasuna izan behar du edozein gobernuarentzat. Horren aurrean gastu militarra dago. Guk gure burua antimilitaristatzat dugu, eta antimilitarismoa hezkuntzan landu nahi dugu. Hortaz, interesgarria iruditzen zitzaien nahi izanez gero hezkuntzarako dirua nondik atera daitekeen azaltzea.

Aurkeztutako datuak deigarriak dira, baina zein azpimarratuko zenituzke?

Hezkuntza mundutik ikusita harri-garriena da hezkuntza gastua

nahiz eta teorian handituz joan, praktikan jaisten doala. Zenbakiak Barne Produktu Gordinarekin alderatuta oso ondo adierazten dute hori, alegia eredu gisa ikusten ditugun Europako gizarteengandik oso urrun gaudela.

Dena den, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ez du bat egiten hausnarketa horrekin.

Noski, egia da urte askotan emaitza onak izan ditugula eta gure hezkuntza sistema oso ona delaren baita, baina azken sei